

Soldaten eta etxebizitzaren prezioaren arteko amildegia, sekulan baino handiago Nafarroan

INHAR IRAIZOTZ :: 10/09/2025

2007-2008 arteko higiezinaren burbuilaren garaian baino %3,7 garestiagoa dira etxebizitza eraiki berriak Nafarroan.

Nafarroa da etxebizitzaren prezioaren igoeraren eta familien errentaren arteko alde handiena duen hirugarren erkidegoa Espainiar estatuan. Hala adierazi du CaixaBank Research agentziaren higiezinaren txosten sektorialak. Ikerketaren arabera, higiezinaren merkatua jada gainbaloratua izatearen zantzuak ditu. Hau da, etxebizitzaren balioa erosleek ordaindu dezaketenaren edota ordaintzeko prest daudenaren gainetik dagoela. Espainiako Bankuak %10ean kokatu zuen iaz etxebizitzaren prezioaren gainbaloratze tasa, estatu mailan. Eta hain zuzen, Madrilen eta Balear Uharteen ondotik, Nafarroak du etxebizitzekiko irisgarritasun tasa txikiena.

CaixaBanken txostenak azaltzen duenez, Nafarroan etxebizitzaren prezioa familien errentaren bilakaeratik bananduz joan da azken urteetan, eta, ondorioz, irisgarritasun-ratioak gero eta tinkatuago daude. Etxebizitza bat eskuratzea, beraz, gero eta zailagoa da, egungo soldata gehienek ez dutelako ematen gehiegizko prezioak dituzten pisuen prezioari aurre egiteko. 2007-2008 arteko higiezinaren merkatuaren burbuilaren garaiko prezioekin alderatuz, %3,7 garestiago dira gaur egun etxebizitza eraiki berrien prezioa.

Ildo horretan, burbuila berriz lehertzeko arriskua egon daitekeela ohartarazi dute ikerketako arduradunek, nahiz eta alde handiak nabari dituzten 2007-2008 urteen arteko burbuilaren garaiarekin. Izan ere, etxebizitza erabilien prezioa %31,1 merkeago da. Ondorioz, etxebizitza eraiki berrien prezioarekin batatzeko bestekoa eginez, %16,4 merkeago dira etxebizitzak Nafarroan krisi aurreko aroarekin alderatuz.

Etxebizitzaren %0,4 bertan bizi ez diren atzerritarrenak dira. Gisa horretako etxejabeen artean, ugariak frantsesak dira. Oro har, gama altuko izaten dira soslaia horretako erosleek eskuratzen dituzten etxeak.

Soldaten eta etxebizitzaren prezioaren arteko amildegia, sekulan baino handiago Nafarroan - Nafarroa - euskalerraiarratia.eus

<https://eh.lahaine.org/soldaten-eta-etxebizitzaren-prezioaren-arteko-amildegia-sekulan>